

infraganti

MARKOS GIMENO

Palindromoa edo kapikua jolasa da, alde batera eta bestera berdin irakurtzen dena. Simetriaren estetika, ixten den zirkuluaren biribiltasuna, bidea bi aldeetara ibiltzearen dibertsioa... gauza oso bitxiak biltzen ditu gutxi batzuen zaletasuna pizten duen figurak. Markos Gimeno ermuarrak palindromo ariketen bere lehen liburua argitaratu berri du.

Palindromoa hitz edo espresio kapikua da, alde batera eta bestera berdin irakurtzen dena. Letrak edota zenbakiak, biak izan daitezke palindromo edo kapikua. Simetriaren estetika horrek muturreko erreakzioak sortzen ditu normalean: lilura edo asperdura.

Markos Gimeno ermuarra liluraren ertzean paratu zen duela ja urte zenbait; «1998. urtea zen. Ikasten ari nintzen arratsalde batean irratian entzun nuen palindromoen berri eta berehala hasi zitzaidan burua martxan». Hasieran gazteleraz abiatu zen, euskaraz jolas hori ezinezkoa edo, behintzat, oso zaila izango zelakoan. Gerora konturatu zen euskarak ere eskaintzen zizkiela letrei joateko eta etortzeko bidexkak. Eta harrapatuta geratu zen, alde batera eta bestera irakurtzen hasi zen eta bere buruan libre zeuden pentsamendu momentu askoren jabe egin ziren palindromoak.

Izan ere, zenbat kostatzen da palindromo bat egitea? «Batzuk berehala ateratzen dira, motza-goak edo xumeagoak direnak. Beste batzuk gehiago kostatzen dira. Palindromoak idaztea baino 'konposatzea' esaten diot nik horri». Batzuetan jarduna hasi eta bukatu erakoa izaten da. Beste askotan, berriz, prozesua zintzilik geratzen da, hasita baina bukatu gabe. «Zoragarria da bat-batean zirkulua ixten dela konturatzen zarenean, palindromoa osatzeko bidea ikusten duzunean», esan du Gimeno.

Ermuko palindromogileak Zerorajasoa.com bloga dauka martxan, eta hori da bere lanaren erakusleho nagusia. Astele-

henero ariketak proposatzen ditu bertan, bere baitan palindromoak ezkutatzeko dituzten ariketak, eta blogera gerturatzen direnei proposatzen dizkie jolas modura. Horiei tiraka, oraintxe argitaratu du bere lehen palindromo ariketen liburua, "131" edo "Aza" izenekoa, izenburua bi modutara irakur baitaiteke.

«Hasieran 69 palindromo biltzea pentsatu nuen, zenbaki oso grafikoa eta palindromikoa delako. Gero eta gehiago nituen, 96ra pasatzea erabaki nuen. Baina hori ere gutxitxo. Hurrengo, 101. Eta hori ere motza geratu zitzaidan. Azkenean, serio samar maketatzen hasi zirenean, 131 izango zirela erabaki nuen», kontatu du izenburuari buruz.

BLOGEKO A PAPERERA EKARRIA

«Blogetik paperera jauzia izan da. Lana blogean egiten dut. Astelehenero ariketa berri bat jartzen dut eta liburuan bilduma bat egin dut. 131 palindromo ariketa bildu ditut. Blogean gehiago daude eta astelehenero sartzen dut ariketa berri bat. Beraz, palindromo gehiago pilatzen segitzen dut», agertu du Markos Gimeno.

Eta, galdera, zergatik ez ditu palindromoak zuzenean ematen? Zergatik pistak jasotzen di-

tuzten jolas eran? «Jendea harrapatzeko. Blogean ere gauza bera egiten dut, jendeari erronka bat jartzen diot, jolas horretan parte har dezan».

Gimenoren ustez, palindromo zerrenda luze batek, bere horretan, «ez dauka xarma handirik». «Ez nion graziaz ikusten palindromoak zerrenda batean emateari. Askoz nahiago nuen pista moduan ematea, jolas moduan. Izan ere, palindromoak neurrian kontsumitu behar dira, bestela aspertzeko arriskua baitago. Dosi txikietan eman behar dira. Horregatik, ariketek aukera ematen dute dosia kontrolatzeko eta jendeari parte hartzeko modua eskaintzeko».

Palindromoaren jatorrian, hasieran, beti dago hitz bat. «Hitz bat irakurtzen dudanean automatikoki buelta ematen diot, eta eskaintzen dituen aukerak ikusten ditut. Eta hitz horretatik abiatzen naiz. Nire palindromoen zerrenda propioa daukat. Batzuk bukatuta daude, besteak bukatu gabe, tartean badira hitz solteak... Gertatzen da, askotan, bat-batean aspaldian zintzilik zenuen palindromo batekin akordatu eta di-da bukatzen duzula. Baina egia da zaletasun bitxi horrek harrapatu egiten zaituela eta bat bukatu orduko hurrengoan jartzen duzula burua». Palindromo ariketak egiten dituztenek ere aitortzen dute harrapatzen duen zaletasuna dela.

Simetrikoak dira, perfektuak, zirkulu itxi bat, «eta eternoak». «Palindromoak denboran irauten du. Bat konposatzen duzunean badakizu hor geratuko dela, betiko, beti izango delako simetrikoa», esan du Gimeno. Palindromogileak ez ezik, irakurleak ixten du zirkulua, «akaso niretzat edo zuretzat ezer esan nahi ez duen palindromoak esanahi zehatza hartzen du beste irakurle baten begietan. Magia hori badauka».

Bitxiak dira palindromoak edo kapikuak, eta ez dira jende askorengana iristen. Hartara, pentsatzekoa da ez dela lan samurra palindromo ariketen liburu bat argitaratzea. «Erabat

- ➔ «Naukazu zakuan»
- ➔ A ze kirola, lorik eza!
- ➔ «Name»-an ezin izena eman
- ➔ «Inor alkate?» Eta klaro, ni
- ➔ Arraro: hemen eme, hor arra
- ➔ Kra! Hamabost akats Obama hark!